Udalbatzak erabaki du aho batez 2023ko uztailaren 17an, abuztuaren 17an eta irailaren 11n egindako bilkuretako aktak onartzea.

### **2.- 2023ko UZTAILAREN 14tik URRIAREN 27a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Irigaray alkateak 2023ko uztailaren 14tik urriaren 27ra eman dituen ebazen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako espedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

### **3.- HERRI APROBETXAMENDUAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA (ETXEKO EGURRAREN APROBETXAMENDUA)**

Irigaray alkateak proposatu du 16 c) artikulua aldatzea: "*Auritzen bizitza, modu iraunkorrean eta jarraituan, gutxienez bederatzi hilabetez urtean*", joan den uztailaren 17ko bilkuran geratu zen bezala, eta paragrafo hau gehitzea:

*"Etxeetarako egurra aprobetxatuz gero, hamabi hilabetean bizi beharko da, ospitaleratu ezean."*

Gaztelu zinegotziak hartu du hitza, eta uste du hori kontrolatzea oso zaila dela, eta, idazketa horren anbiguoa denez, interpretazio asko egiteko bide ematen duela.

Juandeaburre zinegotziak proposatu du testua aldatzea eta "hamabi hilabetean bizi beharko da" jarri ordez "ohikotasunez bizi beharko da" jartzea.

Azanza eta Oyarbide zinegotziek erantzun dute gaur egun kontrola eramatea zaila dela eta Juandeaburre zinegotziaren proposamena oraindik ere anbiguoagoa dela.

Gaia eztabaidatu ondoren bozketa egin da eta emaitzak hauek izan dira.

Proposatutako aldaketa hasiera batean onartzea aldeko lau botoz (Irigaray, Juandeaburre, Azanza eta Oyarbide) eta aurkako batez (Gaztelu).

Hortaz, erabaki da:

1.- Herri-aprobetxamenduak arautzen dituen Ordenantzaren 16 c) artikulua aldatzea eta honakoa izatea:

*16 c).Iauritzen bizitza, modu eraginkorrean eta jarraituan, urtean bederatzi hilabetez gutxienez.*

2. *Etxeetarako egurra aprobetxatuz gero, hamabi hilabetean bizi beharko da, ospitaleratu ezean.*

2.- Hasiera bateko onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **4.- APARTAMENTU TURISTIKOA ETXEBIZITZAREKIN PAREKATZEA UDAL PLANAREN ARAUDIAN**

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta azaldu du Udal Plana idatzi zen garaian ez zegoela apartamentu turistikorik, eta, haren ustez, figura hori prebentzioz arautu behar da, etorkizunean ez dadin gatazkarik sortu, arauaren interpretazio desberdinengatik eta hirigintza-espekulazioagatik.

Gaztelu zinegotziaren iritziz, Nafarroako Gobernuari zuzendu beharko litzaiokе horrelako etxebizitzei bizigarritasun-zedula eskatzeko.

Irigaray alkateak erantzun dio ez datorrela bat baldintza hori ez eskatzearekin, baina Nafarroako Gobernuak bere eskumenen barruan jarduten duela, eta horregatik uste du, etorkizunean sor daitezkeen arazoak sahesteko, Udalak bere eskumenen barruan jardun behar duela.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

C) Udal arautegiaren aldaketa hasiera batean onartzea, ondoren aipatu moduan:  
**Udal Plana**

*III Titulua. Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren araudi partikularra*

**116. art.- 6. idatz-zatia** gehitu da, honako edukiarekin:

*6 Apartamentu turistikoa bizitegi-erabileratzat hartzen da. Lehendik dauden etxebizitzetan bakarrik ezarri ahal izango da. Ezin izango da eraikin berean beste etxebizitza batzuekin bizi. Eraikin bakoitzeko apartamentu bakarrera mugatuko da. Hiri-lurzoruko sektore bateko apartamentu turistikoetarako etxebizitzen kopurua ezingo da izan sektore horretako etxebizitza guztienei % 20 baino handiagoa.*

*Irekitzeko lizenziaren eskaerarekin batera, ezarriko den Planaren sektorean erabilera horretarako etxebizitzen % 20ko muga gainditzen ez dela egiaztatzen duen ziurtagiri teknikoa aurkeztu beharko da.*

**Babes Plan Berezia. (BPB)**

*III Kapitulua. Hiri lurzoruaren erabileraren baldintzak.*

**45. art.- 5. idatz-zatia** gehitu da, honako edukiarekin:

*6. Apartamentu turistikoa bizitegi-erabileratzat hartzen da. Lehendik dauden etxebizitzetan bakarrik ezarri ahal izango da. Ezin izango da eraikin berean beste etxebizitza batzuekin bizi. Eraikin bakoitzeko apartamentu bakarrera mugatuko da.*

*Hiri-lurzoruko sektore bateko apartamentu turistikoetarako etxebizitzen kopurua ezingo da izan BPBko sektoreko etxebizitzaren guztien % 20 baino handiagoa*

*Irekitzeko lizenziaren eskaerarekin batera, ezarriko den Planaren sektorean erabilera horretarako etxebizitzen % 20ko muga gainditzen ez dela egiaztatzen duen ziurtagiri teknikoa aurkeztu beharko da.*

- D) Hasiera bateko onesprena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea dagozkion ondorioak izan ditzan.

## **5.- BAZKALEKUAK ESLEITZEA PAC DELAKOAREN AITORPENA DELA ETA.**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta azaldu du planteatutako proposamenaren helburua bazkalekuen esleipendun bakoitzak erabiltzen duen eremu zehatza adieraztea dela. Esparru berri horiek gaur egun ezin direla egin, horiek sortzeko programak gorabeherak sortuko lituzkeelako aurtengo adierazpenetan, eta, beraz, 2024ko adierazpenarekin egitea proposatu du

Juandeaburre zinegotzi jaunak hartu du hitza, eta NPB hektareak banatzeko modua eta irizpideak azaldu ditu, eta jakinarazi du barruti berriak sortzea larrean esleipendunen eskaria dela.

Udalbatzak aho batez erabaki du bazkalekuetako esparru berriak sortzea NPB 2024 izendatzeko, egungo esleipenen arabera, eta mendiko bazkalekuak banatzeko gaur egun erabiltzen den irizpidearekin jarraitzea.

## **6.- OTERMIN ETA LOIZU ETXEEN ARTEAN ETA PARKEAREN INGURUAN TRAFIKOA ARAUTZEA**

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du 2008an Errotaldeko pentzearren zati bat Alcorta-Miquelez ahizpei erosi zitzaienean, helburua Maiorlategia kalea zabaltzea zela, inguruau ibilgailuen joan-otorria zaila baita. Gaur egun, inguru horretan aparkatzeak ez du pasabidea errespetatzen, eta horren ondorioz, kamioi batek Villa-Mariako atea bota zuen abuztuaren 14an. Proposatu du lerro horiak margotzea Kanaleburua zolatzen denean, arau-hausteei isunak jarri ahal izateko. Parkearen inguruari dagokionez, aparkatzea zaitzeko modua aztertu behar da, ez baita leku egokia. Jakinarazi du iraileko feriaren ondoren zerbitzu anitzetako langileari esan ziola feriara etortzen den azienda lotzeko zirga ez kentzeko eta seinaleztatzeko, nahiz eta badakien hori ez dela egokiena eta behin-behineko neurria izan.

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

Lerro horiz margotzea Maiorlategia kalean, Otermin eta Loizu etxeen parean, Kanaleburua asfaltatzen denean, arau-haustek zigortu ahal izateko, eta parkearen inguruau aparkatzea saihesteko neurriak aztertzea.

## **7.- 5 POLIGONOKO 349 LURZATIA (ARETXEKOSARO) ETA 5 POLIGONOKO 351 LURZATIA (MANESENA) INMATRIKULATZEA**

Irigaray alkateak hitza hartu du eta esan du katastroaren akatsak konpondu eta lurzati berriak osatu ondoren, horiek inmatrikulatu behar direla jabetza erregistroan. Bere ustez, herriko lurzati bat jabetza erregistroan agertzea kontraesankorra bada ere, gaur egun hura babesteko modurik seguruena da. Jakinarazi du, Nieves Urdíroz Villanueva andrearekin eta bere ondorengoekin bezala, elkarritzetako eta ebazpena modu arrazoituan egin zirela, eta, horregatik, eragiten zien desadostasuna konpontzeko Guallart-Domench anaien borondate ona ere aipatu nahi du.

Udalbatzak erabaki du aho batez 5 poligonoko 349 (Aretxekosaro) eta 351 (Manesena) lurzatiak Agoizko Jabetza Erregistroan inmatrikulatzeko izapideak egitea. Lehenengoa herri-lur gisa eta bigarrena Aurizko Udalaren ondasun gisa.

## **8.- AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA.**

Irigaray alkate jaunak hartu du hitza, eta aurkeztutako mozioa onartzea proposatu du. Are gehiago, egunotan Azkonan zabaldu diren berrien arabera, Deierriko Udaleko zinegotzi batek bi eraso jasan dituenean bizilagun baten eskutik, bai ahoz bai fisikoki, kargu publikoa betetzen duen emakumea izateagatik.

Udalbatzak erabaki du aho batez honako mozioa onartzea:

*AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA  
Ikusi duzu? Geldi ezazu!*

*Duela 24 urte Nazio Batuen Batzarrak azaroaren 25a Emakumeen aurkako edozein indarkeria mota desagerrazteko nazioarteko Eguna deklaratu zuen eta gaur, beste behin, indarkeria horren egiturazko izaera agerian jartzea beharrezkoa da. Indarkeria fisikoa, psikikoa, ekonomikoa, sexuala, feminizidioa, salerosketa, sexu-esplotazioa, mutilazio genitala, behartuta edo oso gaztetan egindako ezkontzak emakume eta neskek pairatzen duten indarkerien agerpen batzuk besterik ez dira. Giza eskubideen urraketa argia da, kausak sistema patriarkalean oinarritzen dituena, desberdintasunak betikotzen dituena eta mekanismo eta praktika sozial eta kulturalen bidez erreproduzitzen den botere egitura batean oinarritzen dena, emakumeen aurkako indarkeria ahalbidetuz eta normalizatuz.*

*2003tik, Spainian erregistro ofizialak daudenetik, bikotekideek edo bikotekide ohiak 1.236 emakume erail dituzte, 2,8 milioi neskak eta emakumek pairatu dute sexu-indarkeria bizitzako uneren batean, sexu-askatasunaren aurkako delituengatik % 84 emakumeak dira eta sexu-indarkeriako delitu horien arduradunak gizonak dira % 96an. Estatuko Fiskaltza Nagusiaren datuen arabera, Nafarroan 2022an % 25 gehiago izan ziren sexu-askatasunaren aurkako auziak, eta % 94 gehiago sexu-erasoak. Era berean, 16 urtetik beherakoen aurkako sexu-erasoak % 166 igo ziren, aurreko urtearekin alderatuta.*

*Zifra horiek adierazten dute emakumeen aurkako indarkeria, eta zehazki sexu-indarkeria, gure gizarteko arlo guzietan dagoela, eta badakigu askotan ez direla salatzen eraso horiek. Indarkeria hori bikote-harremanetan, etxeen, eremu digaletan, kirolean, politikan, komunikabideetan, lan-esparruan, elkarteen, aisialdiko guneetan, kaleetan... agertzen da, eta oinarri ditu, bestea beste jarrera matxisten normalizazioa, diskurtso negazionistak eta gizonen konplizitate edo axolagabekeria. Horiek denak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna erdiesteko feminismoak lortutako aurrerapenekiko erresistentziak dira.*

*Emakumeen aurkako indarkeria jokamolde askoren normalizazioaren bidez betikotzen da. Egunero ikusi eta entzuten ditugu honelako komentarioetan: “orain ligatzeko kontratu bat sinatu behar da”, “muxu bat besterik ez zen izan, ez da hainbesterako!”, “ezin zaizue ezer ere esan, dena da iraingarria zuendako!”, etab. Horiek indarkeriarekin konplizeak diren diskurtso negazionisten adibide batzuk besterik ez dira, eta berdintasun erreala eta eraginkorra erdiesteko lanean jarraitzeko galdegiten digute, gizonek zeregin horretan duten implikazioari bereziki eta zuzenean dei eginez. Beharrezkoa da denok konpromiso aktiboa hartzea, matxismoa betikotzen duten jokamolde normalizatuak, norberarenak edo besteenak, identifikatz eta desagerraraziz. Bereziki saihestezina da gizonek aurrerapauso bat ematea eta egoera horiek betikotzen dituen konplizitatearekin amaitzea.*

*Horregatik guztiagatik, adierazpen hau bultzatzen dugun Tokiko Entitateek honako hau adierazten dugu:*

- *Gure arbuioa emakumeen aurkako indarkeria-mota ororekiko, edozein arlo eta testuingurutan.*
- *Gure konpromisoa, Administrazio Publiko garen aldetik, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak desagerrazteko lanean jarraitzeko, bai eta tokiko entitateen agenda politikoan emakume eta neskatoen indarkeriarik gabeko bizitza bizitzeko eskubidea bermatzen duten neurriak txertatzeko ere, emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin eta herritarrekin elkarlanean.*
- *Gure ardura, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean koordinatuta jokatzeko tokiko protokoloak bermatzeko, sentsibilizazioaren, prebentzioaren, arretaren, eskuhartzearen eta erreparazioaren arloetan lan iraunkorra eginez.*
- *Gure konpromisoa erasotutako edo eraildako emakume eta neskatoekin, baita horien seme-alabekin ere, sexu-indarkeriari aurre egin behar izan baitiete.*
- *Gure interpelazio zuzena adin guztiako gizonei, konpromisoak har ditzaten eta emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak aktiboki ager daitezzen.*
- *Gure deia eta aitorpena herritarrei, emakumeen aurkako indarkeria desagerrazteko bidean haien arbuioa eta konpromisoa adierazten jarrai dezaten, indarkeria horren agerpen guztia salatzen, haren oinarri diren eta emakumeen eta nesken bizitza eta askatasuna baldintzatzen duten jarrerak agertaraziz eta herritarrak gonbidatzea azaroaren 25aren inguruau antolatzen diren jarduera guztieta parte hartzera.*

## **KULTUR ETXEKO INGURATZAILEA HOBETZEKO PROIEKTUA ONARTZEA**

Irigaray alkateak hartu du hitza, eta jakinarazi du kultur etxearen hainbat kultur jarduera egiten direla, hala nola erakusketa, hitzaldiak, zinema emanaldiak, antzerkia, kontzertuak eta jardunaldi tematikoak, tokiko eta eskualdeko biziagunei zein turismoa eginez herria bisitatzen dutenei zuzenduak eta gauzatzeko planteatu zituen ideietako bat zela, joan den uztailaren 17ko bilkuran jakinarazi zuen bezala.

Zehaztu du hasieratik eraikinak arazo larriak dituela. Alde batetik, teilatuak itaxura anitz ditu eta ura toki anitzetatik sartzen da, itaxurak gero eta handiagoak dira, eta, bestetik, berogailuko gastua izugarria da, paretak gaizki isolatuak daudelako eta beroa erraz galtzen delako.

Uztailaren 18an Nafarroako Pirinioetako UGETen inbertsioei buruzko informazio-bilera egin zen, eta bilera horretan abuztuaren 31n jarri zen proiektuak aurkezteko epea. Bilera horren ondoren, Eduardo Echeverri Tapia arkitektoari eskatu zion inguratzalea hobetzeko memoria baloratua egiteko, obra eraikin publikoetarako energia-eraginkortasunaren lerroan sar zitekeela uste baitzuen. Proiektatutako hobekuntza 420.463 eurokoa da eta dirulaguntza horren %86 da.

Ondoren, barrualdea berregituratuko da, Zalduan aurkitutako hondakinekin erakusketa iraunkor bat jartzeko, dibulgazio-panelekin batera, eta Linduseko lepoak hegaztien migrazioan duen garrantzia zabaltzeko. Azken jarduera horretan, klima-aldaketaren ondoriozko migrazio-aldaketak aztertuko dira. Eskualdeko biziagunentzat zein turistentzat tokiko bi balio horien garrantzia agerian uzteko lekua izatea nahi da.

Gaineratu du hurrengo korporazioa izango dela proiektua eta kudeaketa ekonomikoa gauzatuko dituena, eta horrelako aukera bat berriro gertatzea zaila dela uste du. Esan du, higiezinaren narradiura saihestea eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko, hau da, klima-aldaketaren aurkako borroka premiazkoa denez, aukera aprobetxatu behar dela. Horregatik, honako asmo-adierazpen hau onartzea proposatu du:

-Aurizko Udalak onartu egin du Eduardo Echeverri Tapia arkitektoak kultur etxeko inguratzalea hobetzeko egindako memoria baloratua.

-Aurizko Udalak, hala badagokio, aurrekontu-partida jarriko du 2024ko ekitaldiko aurrekontuetan.

### **9.- BESTERIK**

#### **Egur lotea saltzea**

Irigaray alkateak jakinarazi du aurten Antsobin markatutako egur-lotea Larrebeitia enpresari adjudikatu zaiola eta prezioa 47.743 € gehi BEZA dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Baigorriko Sindikatuaren ekarpena**

Irigaray alkateak jakinarazi du Baigorriko Sindikatuko presidenteak, Michel Bidartek, 4000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa adierazi duela Atalozi-Urtazkiteko Burdin hesiaren eta Antonen Lepoaren arteko bidean egindako hobekuntzak Aldudeko artzainentzako ere onuragarria baita.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Cederna-Garalur**

Irigaray alkateak jakinarazi du irailaren 20an eskualdeko ordezkari Esteribarko alkatea, Guillermo Larrayoz izendatu zutela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Amma Ibañeta**

Irigaray alkateak jakinarazi du joan den urriaren 4an akziodunen bilera izan zela eta 2022ko kontuak eta 2023ko aurrekontua onetsi zirela. Hortaz gain batzordeko kideak hautatu ziren eta toki entitateen ordezkariak Miguel Angel Iriarte, Esteribarko zinegotzia, eta Leire Remiro, Erroibarko alkatea, izendatu zituzten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUKF)**

Irigaray alkateak jakinarazi du urriaren 6an batzar orokorra izan zela eta eskualdeko ordezkari Patxi Enkaje, Abaurregainako alkatea, izendatu zutela, eta buru Xabier Alcuaz, Tafallako alkatea.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Abiadura kontrola San Nikolas karrikan**

Irigaray alkateak jakinarazi du herriko bizilagun batzuk eskaera aurkeztu dutela karrika horretan abiadura moteltzeko neurriak har daitezen. Lehen urrats gisa eta seinaleei kasurik ez zaiela egiten kontuan hartuta, Herrizaingo Sailari eta Gobernuaren Ordezkaritzari eskatu zitzaien bideko abiadura kontrolatzeko, eta Herri Lan Sailarekin biltzeko eskaera baten zain gaude. Bilera horretan "lo-zaindariak" eskatuko dira. Herrizaingo Sailak jasotako eta suhiltzaileen parkeak eskatutako txosten batek bermatzen du gomendio hori.

Udalbatza jakitun da.

### **Artisautza eta iraileko feriak**

Irigaray alkateak jakinarazi du giro ona izan zela bi ferietan eta artisauak pozik zeudela izandako salmentarekin eta postuen kokapenarekin eta *Auritz zinemana/Burguete en el celuloide* argitalpenak arrakasta handia izan zuela eta ia agortua dagoela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **UGET Nafarroako Pirinioaren dirulaguntza deialdia**

Irigaray alkateak jakinarazi du Zokoeta-Gorriti zubia biziak tentzako begiztaren memoria aurkeztu dela. Memoria hori ez da funtsetan sartu, beste laguntza batzuetarako finantzaketa izan dezakeelakoan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Herriko mugen aldaketa Mendixurin eta burdin-sare berria Arritxipin**

Irigaray alkateak jakinarazi du laster Aurizberriko kontzejuko kideak deituko dituela Udal honekin batera muga seinaleztatzeko eta teknikari batek jasotze topografikoaz arduratuko dela. Arritxipiri dagokionez, jakinarazi du, Aurizberriko kontzejuarekin adostuta, alanbre-hesiaren trazadura aldatu dela, ez muga, haitzaren inguruaren egiten den haizetekoa saihesteko, eta alanbre-hesia Aurizberri aldetik lekualdatu dela, komenigarriagoa delakoan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Bilera Nafarroako Gobernuko presidentearekin**

Irigaray alkateak jakinarazi du urriaren 3an bilera izan zela Chivite Navascues andrea, Taberna presidenteordea eta Chivite Cornago Tokiko Administrazioko kontseilaria eta

NLEan trakzio-udaletako alkateen artean eta hor aipatu zela premiazkoa dela Despopulazioaren aurkako Legea onartzea eta Pirinioko Planaren etorkizunaren inguruko kezka azaldu zen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Pirinioko Mahaia**

Irigaray alkateak jakinarazi du Pirinioko Mahaia kezkaturik dagoela Pirinioko Planaren etorkizunarekin eta ez dakigulako zer departamentura atxikituko den. Hori dela eta, bilera eskatu dio Presidenteari eta bizilagunei elkarretaratze batera deitu zitzaien, Jaurrieta, *Pirinioa ez da hil, Pirinioa mugitzen ari da lelopean*, joan den urriaren 17an. Bertan azaldu zitzaien bertaraturei egungo egoera eta egin beharrekoak lanari berriro ekiteko.

Jakinarazi du baita ere Planaren barnean, Garralda eta Erroibarko Udalekin eta Aezkoako Batzarrarekin elkarlanean, derrigorrezkoa ez den irakaskuntzako ikasleen garraioa lantzen ari direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Maiatza eta iraila bitarteko erauntsiek eragindako kalteen balorazioa**

Irigaray alkateak jakinarazi du Landa Garapeneko departamentuak udalei eskatu diela aurtengo erauntsiek aseguratu ezin diren ondasunetan eragindako kalteen balorazioa egitea, horiek konpontzeko laguntza arruntak jaso ezin dituztenak hain zuen ere. Urdoz, Erlande, Azanza eta Loigorri etxeetako maldetan zein Arretxe eta Espelosin etxeetako gibeleko aldeetan izandako kalteen balorazioa aurkeztu da, guztira 45.000,00 € gehi BEZA.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

**Maria Luisa Ibáñez Muñezak** Irigaray alkate jaunak jakinarazi du urriaren 9an 100 urte bete zituela María Luisa Ibáñez Muñezak, eta, hori dela eta, Udalak, herri osoaren izenean, jaiotza-agiriaren koadroa oparitu ziola.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Ura hartzeko hobekuntza lanak**

Irigaray alkateak iturriko eta ur-biltegiko lanen gaineko informazioa eman du. Bertan, 1913ko abenduaren 9tik 2023ko urriaren 9ra arte martxan egon den burdinazko hodi zaharraren hondakinak jaso dira historiaren zati gisa. Jasota uzten du Jesús Pedroarena Etulain aguazila lanen martxa egokian inplikatuta dagoela, obrak eragindako hornidura-arazoak eta hornidura bermatzen zuen azpiegituraren behin-behinekotasuna konpontzen aritu baita.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Ur-biltegirako bidea**

Irigaray alkateak jakinarazi du ur-biltegia konpontzeko obrak aprobetxatzu, ibilgailuentzako sarbidea hobetu dela, Baztanbideko bidegurutzetik hirurehun metro baino gehiagoko luzeran, hori guztia Orreagako udalerrian. Horretarako, Masoko bordako eta Iturrialdea etxeko hondakin birziklatuak erabili dira, Ipetean metatu eta tratatu direnak.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **IKOak berreskuratzeko Turismo Ministerioaren dirulaguntzak**

Irigaray alkateak jakinarazi du jasotako informazioaren arabera deialdiaren ebazpena 2024ko maiatzaren 17a arte luzatu dela. Gaineratu du bilera eskatu diola turismo zuzendari berriari proiektua azaltzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Belaunaldi guztientzako parkea**

Irigaray alkateak jakinarazi du haur parkea berritzeko lanak Astobizkar enpresari eta igeltserotza lanak Urdazubiko Bengoetxea enpresari adjudikatu zaizkiela. Pergolaren eraikuntza barne hartzen duen bigarren faseari dagokionez, herritarrei dei egitea da asmoa, proiektuan parte har dezaten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Barra erauntsiaren lanen ohiantzea**

Irigaray alkateak jakinarazi du udaberrian auzolana deituko duela obrak egin ondoren ugaldeko bazterretan zumezko aldaxkak eta zuhaitzak jartzeko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Maisuen pisuak**

Irigaray alkateak jakinarazi du bilera eskatu diola Etxebitzako kontseilariai gaur egungo etxebitzitzak inguruko lanpostuei lotutako alokairuko hiru etxebitzitza bihurtzeko bideak ikusteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Herriko errota erostea**

Irigaray alkateak egungo jabeekin, Herri-lurren Atalarekin, Nekazaritza Azpiegituren Atalarekin, hirigintza-aholkularitzarekin, Vianako Printzearekin eta Ingurumeneko Departamenduarekin egindako kudeaketan berri eman du, higiezina udal-kutxetarako kostu ekonomikorik gabe eskuratzeko kontuan hartuta eraikina egiturazko kolapsoa izateko arriskuan dagoela. Erosketa eraikinaren zentzu historiko eta kulturalean justifikatzen du, Erdi Aroko errota baita. Antzina Nafarroako Koroarena izan zen. Erregeek, 1452eko aldian aldiko eskutitzen arabera, Martin de Erro eta haren oinordekoei eman zieten. 1513an erdia Gracian de Ripaldaren esku geratu zen. Azkenik, Migel Xabierrek errota titulu justuen bidez eskuratua zuen, erdizka Martin Ayanarekin. Horrela, 1525eko otsailaren 1ean, Francisco de Jaso y Azpilicueta (San Frantzisko Xabierkoa) hiri honetara etorri zen bere jabetzako zatiaren errentamendu-kontratua sinatzera. Inguruko errota asko bezala, Mendizabalen desamortizazioak eragin zion, eta enkantean jarri zuten; izan ere, 1860an bizilagun talde batena zen, eta urte bereko uztailaren 31n Jose Errori saldu zioten.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **2023ko plantilla organikoa**

Irigaray alkateak jakinarazi du Joseba Otano Villanueva jaunak, Administrazioan Euskaraz Taldearen izenean, eskatu duela, 2024an plantilla onartzeraokoan, hizkuntza-eskakizuna jartzea idazkaritza-plazari eta zerbitzu anitzetako langileei, zehazki C1 eta B2 mailak, hurrenez hurren, eta administrari-plazena igotzea B2tik C1era

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Celine erauntsiaren kalteak**

Irigaray alkateak jakinarazi du urriaren 28an eta 29an Celine erauntsiak eragindako haizeteen ondorioz kalteak izan zirela frontoiko teilituan eta horiek konpondu beharko direla eta aurrekontua eskatu duela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **1936ko gerran eraildako eta errepresiatuen memorialaren aurkezpena**

Irigaray alkateak jakinarazi du behin plataforma eginda, lana eta plaka jarriko direla eta legegintzaldia bukatu aurretik ekitaldi bat antolatuko dela familiekin batera eta Udalak egindako *Memoriarik Ezaren Kontra/Contra la Desmemoria* argitalpena banatuko dela. Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Alkatetzaren agurra**

Irigaray alkateak hitza hartu du eta testu hau irakurri du:

*Udalbatza honek egiten duen azken ohiko bilkura izanik, eskerrak eman nahi dizkiet kide guztiei, bakoitzak udalerriaren kudeaketari buruz duen iritzi desberdinak egindako ekarpenagatik. Covid-19aren pandemiak sortutako ziurgabetasunak markatutako legegintzaldia izan da. Pandemia horretatik, nire ustez, gizateriak ez du ezer ikasi; aitzitik, ia gauza guztietañ okerrera egin dugu. Aurrekaririk gabeko krisi klimatiko batean gaude, eta ez dakigu nola amaituko den, eta, gainera, gure arteko gatazka askotan murgilduta gaude. Osasun-krisiaren eta ekonomiaren geldialdiaren ondoren, Next-Generation suspertze-funtsak iritsi ziren, eta uste dut Udalak behar bezala aprobetxatu duela aukera, berritzeko eta etorkizunerako beharrezkoak diren proiekturekin. Pirinioko Plana errealitate bat da eta Pirinioetako bizilagunen zein erakundeen lanaren ondorio da. Berriaz diot, pandemiaren ondoren gizarteak bere jarrera hobera aldatuko zuela aurreikusten bazen ere, hori ez da horrela izan, eta gizateria individualistagoa dugula, inplikazio sozial txikiagoarekin, ingurumenarekiko errespetu gutxiagorekin, eta hori auritzarra bezalako gizarte batean nabarmenagoa da, axolagabetasun eta kispazio kasu gehiagorekin.*

*Udalbatza berriari onena opa diot gobernatuko dituen lau urteetan, eta alkate berriari adierazten diot justiziaren makilak, herri honetan izendatzen diren bezala, areto honetako beira-arasan geratzen direla, eta gogoan izan dezala zer esan nahi duten, hau da, justizia egitea. Azkenik, bere esanetara naukala esan nahi diot, nahi duenerako, eta jakinarazten dut nire ustez positiboak diren proiekturetan eta Auritzen defentsan konprometituta jarraituko dudala.*

#### **10.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.